

# Boxer Kodexa

Ekialde Urruneko errealitate historikoa XVI. mende  
amaierako eskuizkribu baten bidez

**Gradu Amaierako Lana (GrAL)**

Egilea: Joseba Guerenabarrena Ruiz de Galarreta

Zuzendaria: Alberto Angulo Morales

Saila: Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia

# Laburpena

Mendeetan haren berri izan gabe eta zenbait urtetan arreta handirik jaso gabe egon ondoren, ezohiko kodex bat agertu da Filipinetako eta Hego-ekialdeko Asiako historiografian. Boxer Kodexa delakoa, balio etnografiko handiko kontakizun eta irudiei esker, XVI. mende amaierako errealitate historikoa ezagutzeko iturri emankor gisa goratzen da. Hala ere, material historiko bezala erabiltzea zalantzan jarri da. Gradu Amaierako Lan (GrAL) honen bidez, eskuizkribua bere testuinguruan kokatu, azken aldian mundu akademikoan izan duen eragina aztertu, eta, azken buruan, dokumentu-iturri gisa erabil daitekeen egiaztatu nahi dugu.

**Gako-hitzak:** Boxer Kodexa, XVI. mendea, Manila, Dasmariñas, Txina, Hego-ekialdeko Asia

## Abstract

After centuries without knowing its existence and years of being neglected, an unusual codex has appeared in Philippine and Southeast Asian historiography. The so-called Boxer Codex, thanks to narrations and images of great ethnographic value, rises as a prolific source of knowledge of the historical reality of the late 16th century. However, its use as historical material has been questioned. With this Bachelor's Thesis (GrAL) it is intended to contextualize the manuscript, analyze its recent impact in the academic world and, ultimately, check if it can be used as a documentary source.

**Keywords:** Boxer Codex, 16th century, Manila, Dasmariñas, China, Southeast Asia

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
<b>2. Ikerketen testuingurua</b>	<b>4</b>
2.1. Zein iturri erabili dira eta nortzuk dira horien egileak?	4
2.2. Ikergaiaren egoera	7
<b>3. “XVI. mende bukaerako Manilako eskuizkribua”</b>	<b>9</b>
3.1. Zer da Boxer Kodexa?	9
3.2. Boxer Kodexaren berraurkikuntza	14
3.3. Kasu azterketa	18
<b>4. Ondorioak</b>	<b>25</b>
<b>5. Bibliografia</b>	<b>26</b>

# 1. Sarrera

XVI. mendea mota guztietako gertaera, aurkikuntza eta eraldaketa anitzen lekuko izan zen. Baina, zalantzarik gabe, mende honek zerbait suposatu bazuen, munduaren zati guztien arteko lotura modu iraunkorrean izan zen, *globalizazio goiztiar* izenarekin ezagutzen dena<sup>1</sup>. Bi potentzia iberiarren arteko lehiak itsas espedizio ugari berekin ekarri zituen, ordura arte ezezagunak edo oso gutxi ezagutzen ziren tokiei atea ireki zizkietenak, Txina bezala. Gaztelauen kasuan, Filipinetan izandako presentzia eta Manilako galeoiaren inaugurazioa dira Felipe II.aren agenda nabarmendu zuten asmo hedatzaile, komertzial eta erlijiosoen bi adibide, interkonexio globaleko testuinguru batean.

Koiuntura horretan burutu izan zen Boxer Kodexa, osagai etnografiko handiko kontakizun eta irudien bilduma, Hego-ekialdeko Asiako hainbat herriri buruzko proiektu inperialista eta antropologikoa aldi berean erakusten duena. Hala ere, duela gutxira arte ezin izan da eragozpenik gabe iturri hori kontsultatu eta, beraz, bere eragina historiografian ez da hain handia izan. Horregatik, GrAL honen helburua XVI. mende amaierako manilar obra hau dokumentu-iturri gisa erabil daitekeen egiaztatzea da.

Horretarako, lehenik eta behin, Ekialde Urrunari buruzko lehen begirada europar/iberiarrekin lotutako ikerketen egoera aztertuko da, soilik espainiar material historikoetan ardaztuz. Iturri horietaz baliatuz zenbait adituek jorratutako gaiak ikusi ondoren, Kodexari erreparatuko zaio. Lehenengo urratsa eskuizkribua testuinguruan kokatzea izango da, hau da, zer den, nork bultzatu zuen eta beste ezaugarri batzuk azaltzea, ondoren, bere berraurkikuntzari buruz hitz egiteko. Azkenik, lanaren balioa nabarmentzeko eta dokumentu-iturri gisa duen erabilera frogatzeko, gai jakin bati buruzko kasu azterketa txiki bat gauzatuko da.

---

<sup>1</sup> Bernd Hausberger historialariak sortu zuen termino hori, egungo globalizazioaren aurreko aldi hori definitzeko (Hausberger, 2018).

## 2. Ikerketen testuingurua

### 2.1. Zein iturri erabili dira eta nortzuk dira horien egileak?

XVI. mende amaierako panorama historiografiko gaztelarra, Hego-ekialdeko Asiari dagokionez, Txinarekiko izan zituzten proiektuek gogor baldintzatzen dute. Boxer Kodexaren antzekoagoak diren iturriak existitzen direla egia bada ere, finkatutako aldi kronologikotik ihes egin edo ez dute historialarien interesa asko piztu, Juan González de Mendozaren obra handia ez bezala.

1585ean argitaratutako *Historia de las cosas más notables, ritos y costumbres del gran Reino de la China* liburuan azken bi hamarkadeetan zehar gauzatutako espedizio eta argitalpen nagusiak elkartu ziren. Esate baterako, Martin Arrada eta Miguel de Luarcaren enbaxadaren kontakizunak (1575), Bernardino de Escalanteren liburua (1577), eta Pedro de Alfaroren espedizioaren barruan idatzitako Agustín de Tordesillas (1578) eta Francisco de Dueñasen (1580) kontaketak. Iturri bakoitzak, informazioaren zein autorearen aldetik, elementu bereizgarriak eduki eta, beraz, hainbat modutan sailkatu daitezke. Orokorrean, historialariek Txinan egon ziren autoreak eta egon ez zirenak banandu, berriemaileen izaera erlijioso edo laikoa kontuan hartu, jatorrizko erlijio-ordenari arreta jarri edota kronologikoki sailkatzen dituzte iturriak. Kontakizunen egileei buruzko datuak emateko asmoz, aipatutako lehen moduaren bidez sailkatuko dira, hots, Txinara bidaiatzea lortu zutenak —Arrada eta Luarca; Tordesillas eta Dueñas— eta joan izan ez zirenak —Escalante, Mendoza—.

Gaztelauek 1564an Filipinetara heldu eta 1571an Manilan ezarri eta gero, Txinara hedatzeko nahia handitu baino ez zuen egin hauen artean. 1567an itsas murrizketak kendu bazituen ere<sup>2</sup>, Ming dinastiak bertako agintarien baimenik gabe itsasoz sartzea debekatzen jarraitzen zuen. Zorionez, Limahon (txineraz Lin Feng, 林风) pirata garaitu ondoren —azken urteetan Fujian kostaldeko hiriak sistematikoki arpilatu zituen—, txinatarrek talde txiki baten bidalketa onartu zuten bisita ofizial baterako. Enbaxada horretan jadanik aipatu egin diren bi protagonistak egon ziren,

---

<sup>2</sup> *Haijin* (海禁) edo itsasoko debekua Ming dinastiaren politika isolazionisten parte izan zen, gehienbat pirateriari aurre egiteko. Hala ere, 1567an, Longqing enperadorearen erregealdia hasi zenean, *kaihai* (開海) delakoa onartu zen, Fujian bezalako kostaldeko eskualdeetan debekuak arintzeko.

Martin Arrada fraide agustindarra eta Miguel de Luarca soldadua, bidaiari buruzko kontakizun bat Koroari igortzeko betebeharra izan zutelarik. Arrada eta Luarca estatu tributarioen misio ofizialetarako gordetzen zen protokoloarekin hartuak izan ziren, eta informazio kopuru harrigarria bildu zuten han egon ziren hilabete eta erdian, hain zuzen, 1575eko uztailaren 7an Xiamenera iritsi eta abuztuaren 22an Manilarantz itsasoratu baitziren (Folch, 2010b:66-67).

Martin Arradak, Andres Urdaneta bezalako agustindarrekin batera, 1564ko Miguel Lopez Legazpiren Filipinetarako espedizioan parte hartu zuen. Letrak atsegin zituen eta txinera maila nahikoa zuen pertsona gisa, iturri txinatar desberdinetatik biztanleriari, zergei edota hiriei buruzko hainbat datu gehitu zituen bere kontakizunean. Bere behaketak ere balio handikoak izan ziren Ming dinastiako Txinari buruz gehiago jakiteko (Folch, 2013:56-58). Horregatik, Mendebaldeko lehen sinologotzat<sup>3</sup> jotzen da. Azken finean, Arradak agustindarren misioaren oinarriak ezarri zituen Txinan, herrialdean misio bat sortzeko baimena lortu ez zuen arren (Sola, 2017:29-35). Miguel de Luarcaren bizitzari buruzko informazio gehiegirik ez badago ere, mendearen erdialdean izen bereko Asturiasko herrian jaio zen soldadu eta enkomenderoa izan zela badakigu. Luarcaren kontakizunak, luzeagoa bada ere, Arradarenaren ildo berberak jarraitzen ditu, oro har (Folch, 2013:53). Hala ere, bere *soldadu-ikuspegiak* berezko nortasuna ematen dio kontaerari Txinako gizartearen alderdi batzuk hautatu eta interpretatzerakoan, hala nola diziplina militarra, portuak edo probintzietako garnizioak (Monc6, 1998).

Arrada eta Luarcaren enbaxadari buruzko berriak berehala iritsi ziren Mexikora, eta orain arte Ozeano Barea zeharkatzeko aukerarik izan ez zuten beste ordena erlijiosoen interesa piztu zuten. Hori izan zen frantziskotarren kasua, Filipinetara iritsi ziren bigarren erlijio-ordena bihurtu baitziren. Testuinguru horretan, Arrada eta Luarcaren espedizioaren porrotak —proiektu ebanjelizatzaileari dagokionez behintzat— Filipinetako gobernadore berria zen Francisco de Sandek txinatarrekiko zuen gorrotoa areagotu eta Txinara bidaiatzeko edozein saiakera debekatzea eragin zuen. Hala eta guztiz ere, frantziskotarrek, Pedro de Alfaro buru zutela, bidaia ezkutuan eta legez kanpo egitea erabaki zuten (Cervera, 2014:429-432). Espero bezala, espedizio hau

---

<sup>3</sup> Sinologia Txinako historiaren, hizkuntzen eta kulturen azterketari deritzo.

arazoz eta ustekabez josita egon zen, baina dena den, frai Tordesillasen eta Francisco de Dueñas soldaduaren kontakizunek informazio ugari helarazi zuten<sup>4</sup>.

Tordesillasen deskribapen guztien artean, gehien nabarmentzen direnak herri-sinesmen erlijiosoei buruzkoak dira, idolatrikotzat jo zirenak<sup>5</sup>. Lekaide honi esker, José María Santosen hitzetan: “podemos obtener una imagen realista de la China de finales del siglo XVI” (Santos, 2006:124). Bestalde, Dueñasen kontakizuna, Luarca bezala laikoa zena, epaile, zigor eta Txinako justiziarekin lotutako beste gai batzuei buruzko informazioari dagokionez oso aberatsa da (Folch, 2013:60).

Txinara bidaiatzea lortu zutenak alde batera utzita, lehenik Bernardino de Escalante agustindarraren *Nabigazioaren diskurtsoa* aztertu behar da. Orain arte, ez da Asiako ekialdeko esplorazioarekin lotutako iturri portugesen aipamenik egin, izan ere, Escalantek garaiko bi iturri nagusiak —João de Barros (1552-1563) eta Gaspar da Cruzen (1569) lanak— bildu baitzituen. Bere helburua mende hasieratik Txinari buruzko ezagutza guztiak bilduko zituen liburu bat egitea zen. Portugaldar testuen itzulpen hutsetik edo berridazketa- eta laburtze-lan baten bidez, edukia publiko berriari ere egoki zion, Espainiarekiko analogia eta konparazioen erabilerarekin, batik bat (Béguelin-Argimón, 2021:126-133).

Bi zatitan banatuta, Juan González de Mendozaren liburuak Txinari buruzko ikuspegi orokor bat ematen du. Bertara joan nahi izan bazuen ere, Mendoza bera buru zuen enbaxada ez zen inoiz gauzatu. Hala ere, dokumentu ugari eskuratu eta Arradak Txinan erosi zituen liburuez baliatu zen, besteak beste, 1585ean bere lana lehen aldiz argitaratzeko. Francisco de Sande, lehen esan bezala txinatarrak gorrotatzen zituenak, armen bidezko konkistaren alde agertu zen. Alonso Sánchez jesuita ere bat zetorren iritzi horrekin, eta biek presio handia egin zioten Felipe II.ari. Aldiz, Mendoza bezalako agustindarrak, Bartolomé de las Casasen jarraitzaileak zirenak<sup>6</sup>, plan honen aurrean

---

<sup>4</sup> Zoritxarrez, Pedro de Alfaro kontakizunik utzi zuenik ez da ageri. Hala ere, Indietako Artxibategi Nagusian Guangzhoun 1579ko urriaren 13an idatzitako gutun bat aurki daiteke: “Carta de Frai de Alfaro a Frai Juan de Ayoza Guardián de Nuestra Señora de los Angeles y Comunes”.

<sup>5</sup> Arrada bezalako agustindarrek ere gizarte idolatra bat deskribatu zuten, hain zuzen, garai hartan konfuzianismoari buruzko ezjakintasuna nagusi baitzen (Sola, 2017:31). Mendozak budisten eta taoisten presentzia adierazi zuen arren, XVII. mendera arte itxaron behar da jesuitek Txinako gizartearen ordenamenduan konfuzianismoari rol nagusi bat eman arte (Folch, 2013:65).

<sup>6</sup> Bartolomé de las Casas (1484-1566) domingotarra amerikar indigenen defendatzaile sutsua izan zen, konkistatzaileek egindako ankerkeriak salatzen zituen.

uzkur agertu ziren. Horregatik, liburu honen bidez Txina eredugarri gisa aurkezten da, errealitatea gehien komeni zitzaionaren arabera desitxuratuz, gizarte jentil baina aldi berean zibilizatu bat erakusteko. Bere lanak arrakasta handia izan zuen Europan, 30 edizio baino gehiago argitaratu baitziren mendea amaitu aurretik. Hori izan zen jesuitek XVII. eta XVIII. mendeetan garatzen jarraitu zuten sinologia europarraren oinarria (Folch, 2013:60-66), baita gaur egun aurrera eramandako ikerketen ardatz nagusia ere.

## 2.2. Ikergaiaren egoera

Mendozaren liburua eta bertan jasotzen diren iturriak funtsezkoak dira Asiako Ekialdearen eta batez ere Txinaren irudiaren eraikuntza aztertzerako orduan. Testu horiek, Txinaren hautematearen lehen paradigma bat osatzen dute, Manel Ollék (1998) *Txinaren irudi iberikoa* bezala definitu duena, XVII. mendeko jesuiten hautematearen aurrekari zuzena. Azken 25 urteetan, nabarmen hazi da XVI. mendearen amaierako iturri espainiarrekiko interesa, aldi horretan gauzatutako ikerketa ugari frogatzen bezala. Dolors Folch (UPF), Diego Sola (UB), Anna Busquets (UOC) edota Victoria Béguelin-Argimón (UNIL) bezalako adituen eskutik gai anitz jorratu dira, ikerketen egungo egoera ebaluatzeko balio digutenak.

Kontakizunetako gai amankomun jakin baten analitika abiatuta, agerian geratu dira garaiko egileek gizarte eta kultura txinatarrari buruz egin zituzten orokortzeak. Folchek (2010a) XVI. mendearen bigarren erdialdeko testu gehienek txinatar guztiek (edo ia guztiek) irakurtzen eta idazten bazekitela nabarmentzen zutela ikusi du. Txinan egondako autoreei deigarria egin zitzaion txinatar idazkeraren izaera bateratzailea, hizkuntza jasoaren eta administrazioaren arteko harreman zuzena, eta Txinako hezkuntzaren hedapena. Hala ere, Folchek Guangzhou, Fuzhou edo Quanzhou bezalako hiri handietatik soilik mugitu zirela azpimarratzen du eta, beraz, baieztapen hori egitean landetan bizi ziren txinatarrak ez zituztela kontuan hartu, biztanleriaren %90 baino gehiago osatzen zutenak alegia.

Gaztelauek Txinan ikusi zuten ohore kontzeptua interpretatzerako orduan, kategoria hori elite letraduko kide izatearekin estuki lotuta zegoen neurrian, Busquetsek eta Torresek (2016) iturri hauek ez zutela klase herrikoien kultura islatzen adierazi dute. Elikagaiak bezalako elementu identitario baten bidez *bestearekiko* diskurtso bat sortzea



posible dela abiapuntutzat hartuta, Béguelin-Argimónek (2019) gaztelauen harridura Txinako janaria eta elikadura-erritualetan aurrean, besteak beste, azaltzen du. Hori beste orokortze bat da, enbaxadetako kideek talde sozial jakin batekin bakarrik harremana izan baitzuten. Aipatzekoa da, halaber, geografia mugatuaz gain, herrialdean eman zuten denbora-tarte murrizta ere kontuan hartu beharreko beste faktore bat dela iturri horiek osatu zuten Txinaren irudia kritikoki aztertzeko.

Orokorrean, iturriek herrialdeari buruzko irudi positibo bat islatu nahi zutela hauteman daiteke. Amerikako indigenek praktikatzen zuten sodomiaren inguruko eztabaidaren testuinguruan, gaztelauak Txinara heldu eta egoera berarekin aurkitu ziren. Sodomia, Espainian oso zigortua, Mundu Berriko indigenen esplotaziorako aitzaki nagusietako bat izan zenez, Txinaren konkistaren aurkako fraideek ez zuten honi buruzko inolako erreferentziarik egin, Folchek (2010b) ongi erreparatu duen bezala. Mendozaren kasua deigarria da; izan ere, Escalanteren eta Luarcaren idazkiek horren lekukotasuna eman arren, berak ez baitzuen horri buruzko aipamenik egin.

Agustindar prelatuaren obrari buruzko ikerketa ugari erakusten dutenez, Mendozaren interesak nagusitu ziren informazioa goraiatzeko, editatzeko eta alde batera uzteko orduan. Diego Solak (2016), Mendozaren trebetasuna iturriekin azpimarratzeaz aparte, Txinari buruz transmititu nahi zuen irudiari egokitzeko nola erabili zituen ere adierazten du. Folchen (2020) arrazoibideari jarraituz, Mendozak Txinako administrazioa, justizia eta kanpo-harremanak jarraitu beharreko eredutzat hartu zituen. Erligioaren auziari heltzeko —“zibilizazio maila” altua izan arren idolatra hutsak baitziren—, txinatarren filosofia morala fede kristautik oso hurbil zegoelaren ideiatik abiatu eta kristautasunera bihurtzea erraztuko zuten elementuak asmatu zituen. Hortik sortu egin zen Txinaren irudi modernoa XVI. mendearen azken hamarkadetan, hurrengo bi mendeetan zehar mantendu egin zena. XVIII. mendearen amaieran, ordea, Mendozaren ereduak zalantzan jartzen hasi eta Europa “sinofiliatik sinofobiara” lerratu zen oso denbora gutxian (Folch, 2020:10).

### 3. “XVI. mende bukaerako Manilako eskuizkribua”<sup>7</sup>

Orain arte, arretaz aztertu dira bi munduren arteko lehen elkarreraginei buruzko ikerketak egiteko erabilitako iturri nagusiak. Betiere lanaren azken helburua ahaztu gabe, hau da, horiek bezala Boxer Kodexa iturri-dokumental gisa ere erabil badaiteke.

#### 3.1. Zer da Boxer Kodexa?

Boxer Kodexa, Manilako Kodexa edota Dasmariñas Kodexa<sup>8</sup> izenarekin ezagutzen dena XVI. mende bukaeran idatzitako eskuizkribu ezberdinez osatutako bilduma bat da. Kodexa 612 orrialdek osatzen dute, horietatik 314 eskuz idatzita daude eta 97 koloretan argizatutako irudi bikainak erakusten dituzte, gehienak testuan zuzenean aipatutakoak. Hutsik dauden 197 orrialdeek Kodexa ez zela inoiz bukatu agerian uzten dute. Horrez gain, irregulartasun batzuk ere aurkezten ditu, esate baterako, falta diren lau orrialdeen galtzea. Eskribau baten eskutik, beharbada egile konpilatzaile baten jarraibideei jarraiki, jatorri eta autore ezberdineko hogeita bi kontakizun kopiatu ziren. Gehienak anonimoak dira eta hainbat iturritatik aterata daude, hala nola ahoz transmititutako kontaketatik, jatorriz gaztelaniaz idatzitako materialetatik eta portugaldar eta txinatar iturrien itzulpenetatik. Hala ere, testu batzuek egiletza aditzera ematen dute, horietako bat Martin Arradak 1575ean Txinara egindako bidaiari buruzko kontaera izaki.

Hogeita bi idatzi horiek ekialdeko Asiako hainbat herri, erresuma eta kokalekuei buruzkoak dira. Zentzu horretan, Kodexa Espainia Berritik Filipinetarako bideari jarraituz hasten da. Behin uhartedian, Manila erdigunetzat hartuta, inguruko lurraldeak deskribatzen ditu gutxi gorabehera erloju-orratzei jarraituz. Testu eta irudien artean, Guam, Filipinak (Luzon eta Bisaya uharteak), Borneo, Molukak, Java, Aceh, Patani, Siam, Ginea Berria, Japonia, Txina eta harekiko tributarioak ziren zenbait erresuma, eta Champako herriak azaltzen dira (Irud. 1). Neurri batean, egileak eskualdeak etnografikoki aztertzen saiatzen da, Manilatik hurbilen dauden lurraldeekin lortuz, hala

---

<sup>7</sup> Atal honen izenburuak Charles R. Boxerren izen bereko artikuluari erreferentzia egiten dio. Argitalpen horren garrantzia funtsezkoa izan zen aurrerago aztertuko den Kodexaren berraurkikuntzan.

<sup>8</sup> Kodexaren jatorrizko izenburua galdu zenez, honek hainbat izen hartu ditu denboran zehar. “Boxer Kodex” izena Charles R. Boxer liburuaren jabe ohiari egiten dio erreferentzia. “Manilako Kodexa” egin zen tokiari. “Dasmariñas Kodexa”, berriz, Gómez Pérez Dasmariñas Filipinetako gobernadoretik dator, eskuizkribuaren bultzatzailea izan zitekeena.

nola Borneo edo Bisayak eta Luzoneko indigenekin, Japonia edo Java bezalako leku urrunagoi buruz xehetasun batzuk soilik ematen dituen bitartean.

Oro har, portugesen eraginaren esferan zeuden lurraldeei buruzko ezagutza mugatu hori Kodexaren datazioarekin bat dator. Jatorriz, Boxerrek (1950:48) ez zuen 1590-1591etik aurrera espedizio baten aipamenik aurkitu, testuan agertutako datarik berantiarrena 1590 baita. Joan-Pau Rubiésen (2019:64) iritziz, Japoniari buruzko informazioak 1592ko erdialdean Manilan zeukaten herrialde horri buruzko ezagutza islatzen du, eskuizkribuaren data urtebete atzeratuz. Nolanahi ere, historialariak Kodexa hamarkadaren hasieran egin behar izan zelarekin bat datoz.



Irudia 1. Boxer Kodexak barne hartzen dituen Asia ekialdeko lurraldeen mapa. Joan-Pau Rubiésen egina (Ollé eta Rubiés, 2019:14-15).

Autoretza Kodexak planteatzen duen problematika nagusienetariko bat da. Manel Ollék (2019) lau esku-hartze maila bereizi ditu; obraren bultzatzailea, kontakizunak antolatu zituen konpilatzailea, testu ezberdinen egileak eta irudiak margotu zituen pertsona. Jarraian, auzi honen aurrean proposatutako teoriak biltzen saiatuko gara.

Lehenik, Kodexa bultzatu eta finantzatu zuen pertsonaren kontua egongo litzateke. Boxer (1950:38) funtzionario laiko bat zela ziur zegoen, zehazki, Gómez Pérez Dasmariñas Filipinetako zazpigarren gobernadore nagusia edo haren seme Luis Pérez, 1590ean Manilara iritsi zirenak. Gaur egun tesi hau da onartuena, Jeffrey S. Turley eta George B. Souza (2016) edo Rubiés (2019) bezalakoek partekatuz.

Bigarrenik, hogeita bi testuak bildu, antolatu eta ordenatu zituen konpilatzailea edo editorea kontuan hartu behar da, idazketa- eta itzulpen-lanak zuzendu eta irudien koordinazioaz ere arduratu zena. Ez dago adostasunik zeregin hauen atzean dagoen pertsona edo pertsonen egiletza aitortzerakoan. Turleyk eta Souzak (2016:461-462) Dasmariñatarrek halako lan handi bat egiteko konpiladore baten laguntza jaso zutela uste dute, Antonio de Morga izan zela iradokiz, 1609ko *Sucesos de las Islas Filipinas* liburuaren egilea eta Manilako Errege Auzitegiaren epailea, gobernadore nagusiaren ordezkari gisa ere jardun zuena. Aitzitik, Loreto Romeroren iritziz: “given its creator’s probable familiarity with Chinese albums and their artisans, the Augustinian missionary and cosmographer Martín de Rada (1533-78) appears to be the Codex’s most likely compiler” (Romero, 2018:118). Bestetik, John N. Crossleyk (2014) Hernando de los Ríos pilotua, kosmografoa, infanteriako kapitaina, memorialista eta Luis Pérez Dasmariñasen kolaboratzaile estua bere gobernadore garaian, rol garrantzitsu horren atzean ezkututzen dela dio. Amaitzeko, Rubiések (2019), gobernadorearengandik hurbil zegoen pertsona laikoa zela oinarri hartuta, Gómez de Bustamante de Andrada lizentziaduna eta Juan de Cuéllar batxilerra sartu ditu aukeren artean.

Hirugarrenik, kontakizun ezberdinen egileak egongo lirateke. Egiletzaren identifikazioa erronka handia suposatu du historialarientzat, testu gehienak anonimoak baitira. Hala ere, Kodexak autoreak esplizituki adierazten duten batzuk baditu, jatorri portugesa dutenekin kointziditzen dutenak: João Ribeiro Gaioren hiru *roteiro*, Malakako apezpikua izan zena, eta Miguel Roxo de Brito abenturazaleak Ginea Berrira egindako bidaiaren deskribapena. Martin Arradaren kontakizunari dagokionez, bere izena aditzera ematen ez den arren, egiletza ziurtasun osoz baieztatu daiteke<sup>9</sup>. Horretaz aparte, lehen sei narrazioak (Guam eta Filipinetako uhartedia barne hartzen dituztenak) pertsona

---

<sup>9</sup> 1575eko enbaxadaren sorrerarekin eta garapenarekin lotutako zatiak alde batera utzi badira ere, Kodexean Arradaren *Relación delas cosas dela China que propiamente se llama Taybin*-ren atal guztiak aurki daitezke.

berak idatzi zituela pentsatzeko arrazoiak daude, izan ere, deskribapenak antzekoak izateaz gain, hauen arteko konparaketak egiten baititu. Kontaketen ikuspuntu laikoa eta datazioa<sup>10</sup> kontuan hartuta, Gómez Pérez Dasmariñasek, bere semeak edo hauen aginduetara zegoen idazle batek idatzi zituela ondorioztatu daiteke.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, irudien autoretzari erreparatu behar zaio. Erreferentzia gisa antzeko irudien bilduma bat erabiliz, ekialdeko Asiako etnia eta kultura ezberdinen eta txinatar agintari, jainko eta izaki fantastikoen irudiak margotu ziren<sup>11</sup>. Oro har, Manilako txinatarren eskulangintza iturri gaztelauetan nabarmendu ohi da. Horregatik, ilustrazio horiek txinatar bati egotzi zaizkio, irudiak kopiatu eta egokitu egin baitziren, eta ez liburu zaharrago batekoak zuzenean erabili. Boxerrek (1950) iritzi hori partekatu zuen. Gainera, irudietako eta legendetako karaktere txinatarrek, idazkera tradizionalaren ordenan idatzita daudenak —eskuinetik ezkerrera— (Irud. 2), jakitun batek idatziak izatea uste zuen. Manilan bizi ziren sangleyen<sup>12</sup> artean, Keng Yong (Juan de Vera izenarekin ere ezagututa) aipatu egin da, Elizarentzako lan ugari egin zituen interprete, inprimatzaile, margolari eta mezenas ospetsua (Ollé, 2019:25-26).



Irudia 2. Boxer Kodexean ageri diren karaktere txinatarren adibidea. 城尖 eskuinetik ezkerrera *Chiam-sian* (*Chamcia* edo *Champa*, Vietnamgo kostaldean kokatutako Cham etniaren erresuma) bezala irakurriko zen, Amoy-ko herri-hizkuntzan (Boxer, 1950:42; Boxer Kodexa, f. 174).

Manilako txinatar eta espainiarren arteko elkarlan horrek Kodexak ezaugarritzen duen hibridismo kulturalaren adierazpenetako bat da. Horrekin batera, Turleyk eta Souzak (2016:473) zenbait iturri txinatar identifikatu dituzte Kodexaren atal batzuk

<sup>10</sup> Lehenengo kontakizuna 1590ean egindako espedizio baten testuinguruan idatzi zela argi uzten da, urte berean Dasmariñas gobernadoreak bere semearekin batera Manilara egindako bidaiarekin bat datorrena (Crossley, 2016:50).

<sup>11</sup> Ez hori bakarrik, erreferentzia gisa erabili ziren txinatar liburu horietatik testu txikiak itzuli eta irudiekin batera erantsi ziren ere (Ollé, 2019:22).

<sup>12</sup> Sangley-ak Manilan bizi izan ziren txinatarren ondorengoak dira (Crossley, 2014).

egiteko, hala nola, “Mendi eta itsasoen klasikoa” (山海經) bestiarioarentzat, eta “Jainkoen inbestidura edo jainkoen sorrera” (封神演義) eta “Hiru erreinuen istorioak” (三國志演義) panteoi taoista eta animalia mitologikoentzat. Era berean, baliteke Txinako estatu tributarioen atala *zhìgòng tú* (職貢圖) txinatar generoan oinarrituta egotea (Ibáñez, 2021:100). Hibridismo kulturalaren beste adibide bat *xaque* (畚客) edo hakka bikote baten irudikapen eta deskribapenean topatu daiteke (Irud. 3). Tsungjen Chenek (2019:125) erakutsi duen bezala, herri honi buruzko informazioa Manilan bizi ziren Hokkien<sup>13</sup> jatorrizko txinatarretatik atera zen, seguru asko. Bi elementu hauen gainean egindako analisiak espainiarrei ezagutza aho bidez transmititu zioten txinatarrez osatutako sare baten existentzia frogatu du.



Irudia 3. *Xaque* bikotea (Boxer Kodexa, f. 166).

Miguel Ibáñezek (2021:100) Kodexaren barruan irudiek jokatzen duten rola azpimarratu du, obra bere osotasunean ulertzeko “ezinbestekoak” direla argudiatuz. Ollék eta Rubiések (2019) irudi horiek testuan zuzenean aipatuta egotea faktore

<sup>13</sup> Hokkieneko dialektoa Min txinatar hizkuntza-taldearen hegoaldeko aldaerakoa da, Manilan nagusi zena.

“erabakigarritzat” nabarmendu dute ere. Izan ere, Rubiésen (2019:48) arabera, eskualde bakoitzeko baldintza geografiko, ekonomiko eta politikoak baino gehiago, bilduman herri eta etnia ezberdinetako ohitura, sinesmen erlijioso, itxura fisiko, jantzi eta apaingarriekiko jakin-mina nabarmentzen baita, eta horrek testua ilustrazioekin lotzen du. Kodexean hautematen den izaera etnografikoa ageriagoa da lehen sei kontaktetan, non herrien ohiturak eta bestelako ezaugarri kulturalak azpimarratzen diren. Hala ere, hurrengo testuetan izaera hori galdu eta ikuspuntu inperial bat nagusitzen da, gaztelauek oraindik konkistatu gabe zituzten lurraldeei buruz hitz egiten baita. Azken finean, Boxer Kodexaren elaborazioa Monarkia Hispanikoak zituen lurralde-asmoekin lotu behar da ezinbestez, Ekialdeko Asiako lurralde batzuen konkista amaierako helburu gisa zutenak. Manilatik abiatuta, espantsionismo nahi horiek Gómez Pérez Dasmariñasek eta bere semeak Kodexa bultzatzeko arrazoi nagusia izango ziren, azkenik monarkari emango zitzaiona. Ollék aipatzen duen moduan:

No se puede afirmar que el Códice de Manila se concibiera enteramente en función de un proyecto específico de expansión o conquista, pero tampoco es sostenible ver en este libro una simple compilación de curiosidades etnográficas descontextualizada de toda intencionalidad política y estratégica. El coste de su ejecución es demasiado alto para imaginarlo libre de intenciones y querencias estratégicas (Ollé, 2019:26-27).

Kodexaren izaera amaitu gabea bi Dasmariñasen patuarekin hertsiki lotuta dago. Gómez Pérez 1593an hil ondoren, Luis Pérez semea bihurtu zen bitarteko gobernadorea 1596ra arte. Hala ere, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten 1593tik aurrera, beraz, badirudi Dasmariñas gazteak eskuizkribua bere kabuz egindako konkista-planen euskarri gisa bakarrik erabili zuela (Rubiés, 2019:44). Azken honek hil eta gero, uste izatekoa da Kodexa Hernando de los Ríos-en eskuetan erori zela, zeina aitarengandik nahiz semearengandik hurbil egon zen. 1605ean Espainiara bidali zutenean, Filipinetako prokuradore gisa, Crossleyk (2014) obrak berarekin bidaiatu zuela iradokitzen du. Herrialdean koadernatua izan ondoren, litekeena da denbora ezezagunaz gortean egon izana, mendeetako isiltasunaren ondoren Ingalaterran agertu arte.

### **3.2. Boxer Kodexaren berraurkikuntza**

Egia esanda, nahiz eta XVI. mendearen amaieran Hego-ekialdeko Asiako historia ezagutzeko iturri aparta eta berezia suposatu, luzaroan eskuraezin iraun du. Juan González de Mendozaren liburuak ez bezala (mendeetan zehar hainbat edizio eta

hizkuntzatan argitaratua izan zena), hainbat arrazoi izan dira Boxer Kodexa jendearen irismenetik kanpo luzaroan egoteko.

Isilaldi luze bat jasan eta gero, 1947an Lord Ilchesterren liburutegiaren zati baten enkantean agertu eta Charles R. Boxerrek<sup>14</sup> erosi zuen. 1950ean, historialari ingelesak idatzitako artikulua baten bidez, Kodexaren existentzia ezagutarazi egin zen. XX. mendearen bigarren erditik aurrera argitalpenak, itzulpenak eta testu zehatzen analisiak gauzatu arren, hainbat hamarkadatan zehar obra bere osotasunean aztertzea ezinezkoa izan zen, Kodexa eskuratzeko zailtasunaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, 1994an egoera guztiz aldatu zen, Boxerrek jatorrizko kodexa Indianako Unibertsitateko *Lilly Library*-ri saldu zionean, geroztik gorde izan den lekua. Hori gutxi balitz, liburutegi honen ekimenari esker, dokumentua kalitate handian erabat digitalizatu egin zen, eskuratzeko ahalmena erraztuz (Martínez, 2021:578)<sup>15</sup>.

Kodexarekiko interesa handitu ahala, 2015 eta 2016 artean bi edizio berri argitaratu ziren, Souza eta Turley (ingelesez) eta Isaac Donosoren (ingeles eta gaztelaniaz) eskutik, hurrenez hurren. Bi edizio berri hauetan planteatutako gai guztiak eztabaidatzeko UPFko ikertzaile talde batek topaketa bat antolatu zuen, hainbat aditu gonbidatuz (Martínez, 2021:581). Hortik aurrera, ikerketa ezberdinez aparte, Kodexa gaztelaniaz argitaratzeko beste ahalegin batzuk ere egin dira, esate baterako, Luis Abraham Barandicaren (2019) argitalpena, GrAL hau egiteko erabili dena. Izan ere, arrazoi handienetariko bat gaztelaniaz argitaratutako ediziorik eza izan da, harrigarria jatorriz hizkuntza horretan idatzi zela kontuan hartuta.

Boxerren lehen artikulutik abiatuta, liburuaren hainbat atal transkribatu eta ingelesez itzuli ziren mendearen amaierara arte. Lehenik, Carlos Quirino historialari eta biografo filipinarrak eta Mauro García kideak Filipinei buruzko atalen itzulpen bat argitaratu zuten 1958an<sup>16</sup>. Filipinismoaren esparruan ere, Felipe Landa antropologoaren 1975eko liburuaren barruan Kodexaren zati bat argitaratu zen. Ondoren, 1982an, John S. Carrollek Brunei buruzko kontakizunaren itzulpen bat egin zuen. Bestalde, 1990ko

---

<sup>14</sup> Charles R. Boxer (1904-2000) bere belaunaldiko XVII. mendeko historia kolonial portugaldar eta holandarreko historialaririk ospetsuena izateagatik ezaguna da. Bere argitalpenak hainbat aldiz goraiatu eta saritu dira.

<sup>15</sup> *Indiana University Digital Library*-n aurkitu daiteke: <http://purl.dlib.indiana.edu/iudl/general/VAB8326> [2023ko maiatzaren 25ean kontsultatua].

<sup>16</sup> 1960an eta 1961ean berriro inprimatu zen izenburu berarekin, kasu honetan liburu formatuan.



hamarkadan Marjorie G. Driver-ek Lapurren uharteei buruzko zatiaren eta J. H. F. Sollewijnek Miguel Roxo de Britoren narrazioaren itzulpenak ditugu. Boxer beratik atera zirenak izan ezik (Champari buruzko kontakizun laburraren transkripzioa eta itzulpena 1970ean edo Britoren narrazioaren transkripzioa 1979an, Pierre-Yves Manguinekin batera), argitalpen horietako gehienek zehaztasun falta eta gaizki-ulertu gehiegi dituzte (Turley eta Souza, 2016:465-468). Dilema horren aurrean, Turleyk eta Souzak Kodexa bere osotasunean itzultzea erabaki zuten. Azpimarratu behar da Kodexaren aberastasuna jendeari helarazteko ahalegin hauek ingelesez egin zirela. Donosoren ediziora arte ez zen azkenean gaztelaniazko bertsio moderno bat denen eskura jarri.

Zergatik ez da, beraz, duela gutxi arte kodex hau mundu anglosaxoniarretik kanpo aztertu? Ez da erraza galdera horri erantzutea, are gehiago liburuak Espainiako historiografiarako izan dezakeen garrantzia kontuan hartuta, espainiarren ezarpenaren unean Asiako errealitateari buruzko informazio nabarmena baitu. Baita Euskal Herrikoa ere, bereziki Kodexean Filipinek duten garrantzia kontuan hartzen badugu, bertan euskal pertsona ospetsuek protagonismo handia izan baitute, Miguel Lopez Legazpi edo Domingo Salazar kasu. Kodexaren gaztelaniazko edizio berria argitaratu aurretik, Donosok irudien erabilera ikonografiko eta sinbolikoaz haratago, testu idatzia baztertu egin dela ziurtatu zuen, beste arrazoien artean, “informazio berririk ez emateagatik”, bigarren mailako material historikotzat hartuz (Donoso, 2014:2). Jakina, garai hartan ez zegoen gaur egun aurkitu ahal diren edizio modernoetako bat bera ere, Kodexa ikertzea edo, besterik gabe, irakurtzea erraztu dutenak.

Boxer Kodexa iturri gisa erabiltzeak izan duen bilakaera egiaztatzeko, *Google Scholar*-en bitartez bilaketa bat egin da, lau denbora-tarte zehatzetan<sup>17</sup>. Kopuru ziurra lortzea zaila bada ere, Kodexaren hainbat izen erabili dira ahalik eta bilaketa zehatzena egiteko. Baita antzekotasunak partekatzen dituen beste iturri batzuekin alderatu egin da ere. Lehenengo konparazioa Antonio de Morgaren *Sucesos de las Islas Filipinas* liburuarekin egin da, 1609an argitaratua<sup>18</sup>. Boxer Kodexaren bultzatzaileak bezala, lan

---

<sup>17</sup> 1950etik hasita 2015. urtera arte, hau da, Boxerren lehen artikulutik edizio modernoan argitalpena arte, denbora-tarte orekatuak errespetatzen saiatu egin den arren, XXI. mendeko eta batez ere azken 8 urteko gorakada nabarmendu nahi izan da.


<sup>18</sup> Originala zein 1909ko edizioa Espainiako Liburutegi Nazionalako webgunean aurkitu daitezke: <http://bdh.bne.es/bnearch/detalle/bdh0000092862> [2023ko maiatzaren 25ean kontsultatua].

honen egilea laikoa da. Liburuaren zatirik handienean Pazifikoko espainiar espedizioei buruz hitz egiten bada ere, azken kapituluak, *Relación de las islas Filipinas y de sus naturales, antigüedades, costumbres y gobierno* izenekoak, uhartediko jatorrizko gizatalde nagusiei buruzko kontakizun luzea eskaintzen du, aztertzen ari garen lanaren antzeko ildo etnografikoari jarraituz. Bestalde, Casanatense 1889 Kodexarekin ere ezaugarri batzuk partekatzen ditu. 1540 inguruan egindako bilduma etnografiko hau, portugesak garai hartan harremanetan izan zituzten herriak eta kulturak irudikatzen dituzten hainbat ilustrazio biltzen ditu, Afrikatik Asiaraino<sup>19</sup>. Nahiz eta bertan kontakizunen izpirik ez egon, irudiak Manilako eskuizkribuarekin aldera daitezke.

Grafikoan ikus daitekeenez (Irud. 4), joan den mendearen bigarren erdian hiru iturri horiek ez zuten ikertzaileen interesa piztu. XXI. mendeko lehen hamarkada eta erdian, Morgaren liburuaren kasuan, joera hori guztiz aldatu eta bere erabileraren gorakada handia ikus daiteke. Beste bi obrei buruzko bilaketak handitu arren, oraindik ere ezjakintasun erlatiboko egoera batean egoten jarraitu zuten. Hala ere, orain arte iradoki den bezala, 2015etik aurrera Boxer Kodexaren edizio modernoan argitalpenei esker, iturri horrekiko lilura erabat handitu da, *Sucesos de las Islas Filipinas* bezalako ikertze-emari oparoa duen lan baten zenbakietara ia iritsiz. Casanatense 1889 Kodexarekiko interesa ia hazi ez izana hainbat arrazoirengatik izan da, adibidez, aztertze moduko narrazioerik ez izateagatik. Hala ere, edizio eguneratua eta publiko guztiarentzat eskuragarria izatearen garrantzia islatzeko balio digu.

---

<sup>19</sup> Kodexaren 77 irudiak Erromako Casanatense Liburutegian modu digitalean daude: <https://casanatense.contentdm.oclc.org/digital/collection/miniature/search/searchterm/Album%20di%20di%20segni%20C%20illustranti%20usi%20e%20costumi%20dei%20popoli%20d'Asia%20e%20d'Africa%20con%20brevi%20dichiarazioni%20in%20lingua%20portoghese/page/1> [2023ko maiatzaren 25ean kontsultatua].



Irudia 4. Boxer Kodexa, *Sucesos de las Islas Filipinas* eta Casanatense 1889 Kodexaren erabilera akademikoa (1950-2023). Nik neuk egina.

Ikerketak loratu egin dira azken urteotan, eta GrALean zehar aipatu izan den Ollé y Rubiések (2019) argitaratutako liburu bikaina horren adierazle nagusia dugu. Hala ere, azken hori alde batera utzita, gaur egun ingelesez egindako ikerketek jarraitzen dute nagusi izaten, baita Kodexaren irudikapen bisualak soilik aztertzen dituztenek. Are gehiago, kasu batzuetan irudiak soilik "apaingarri" gisa erabiltzen dira, Alberto Angulo, Óscar Álvarez, Álvaro Aragón eta Ana de Zaballa koordinatutako *Mitoaz eta epopeiaz harago* (2021) liburua adibide izanda, non ilustrazioak kapituluak bereizteko soilik erabiltzen diren. Dena den, ikertzaileek iturri dokumental hori zabaltzen eta bere eduki aberatsa nabarmentzen saiatu dira, XVI. mendeko harreman iberiar-asiarretan sakontzeko eta ikerketa berriak bultzatzeko asmoz. Egiteke daude antzeko gaiak jorratzen dituzten beste material batzuk (Morgaren liburua, adibidez) Boxer Kodexarekin alderatzen dituzten ikerlanak.

### 3.3. Kasu azterketa

Kodexak dokumentu-iturri gisa duen balioa ikusteko, gai zehatz batzuen kasu azterketa txiki bat egingo da jarraian, material historiko hori ilustrazio etnografiko ederren bilduma izatetik haratago doala eta garaiko europar ikuspegiaren irudi bizia ere eskaintzen digula frogatzeko. Horretarako, ikuspuntu eurozentrikoarekin bat datozen

hiru gai aukeratu dira; konkista, ebanjelizazioa eta aukera ekonomikoak alegia. Aurreko atalean aztertutako kontakizunetan bezala, beren sorterriaren etekinak maximizatu nahi zituzten behatzaile batzuen interesak ziren nagusi. Kodexaren ordena geografikoa errespetatuz, pasarte zehatz batzuk aztertu eta testuinguratuko dira, Hego-ekialdeko Asiako herriei buruz nagusi zen pertzepzioa hobeto ulertzeko asmoz. Beharbada, ikerketa txiki honen bidez, iturri honek XVI. mende amaierako harreman asiar-gaztelauak aztertzeke duen erabilgarritasuna ondorioztatu ahal izango da.

Kodexa “Lapurren uharteetan” (gaur egungo Marianak, zehazki, Guam uhartea) bizi ziren txamorroei buruzko kontakizunarekin hasten da. 1565ean, urtebete lehenago hasitako Miguel Lopez Legazpi eta Andres Urdanetaren espedizioaren ondoren, Mariana uharteak Acapulco eta Filipinen arteko geldialdia bihurtu ziren. Une horretatik aurrera, uharteek ongietorria eman zieten iristen hasi ziren itsasontzi europarrei, bertako biztanleekin ura eta elikagaiak burdinazko objektuengatik trukatzeko. Horixe izan zen Dasmariñas aita-semeen kasua, 1590ean Galeoiaren bitartez Manilara bidaiatu zutenak (Irud. 5). Gaztelauek uharteen gaineko kontrol samarra izanik, kapitulu labur honen ikuspegia etnografikoa baino ez da, bertakoen deskribapenari eta haiekiko elkarreraginei lehentasuna emanez.



Irudia 5. Acapulcoko galeoiaren etorrera “Lapurren uharteetara”. Uste denez, txopan txamorroekin trukeak egiten ari diren bi gizonak Gómez Pérez Dasmariñas gobernadorea eta Luis Pérez semea dira (Boxer Kodexa, orririk gabe).

Filipinetako herriei buruzko kontakizunek antzeko tonu bat partekatzen dute. Luzoneko probintziarik iparraldekoenetik hasita, Cagayan eta bertakoen ohitura batzuei buruzko deskribapen zehatzak ditu (hala nola ehorzketena, aparteko paragrafo batean banandua), baita sinesmenei buruzkoak ere. Gaztelauek Cagayan ibaiaren harana

esploratu, ibaiaren ertzeko zatia menderatu eta Nueva Segovia, gaur egun Lal-lo, kokagunea eraikitzea lortu zuten 1581erako. Bertan oso soldadu gutxi zeudenez, Gómez Pérez Dasmariñas gobernadoreak hainbat espedizio antolatu zituen 1590 eta 1591n zehar, zonaldearen gaineko nagusitasuna sendotzeko. Izan ere, mugimendu errebeldeek zaildu egin baitzuten enkomienda-sistema bat probintzian ezartzea eta, ondorioz, tributua lortzea (baita ebanjelizazio-proiektua ere). Txinarekiko hurbiltasunetik haratago ere, Cagayango bakegintzarako pizgarri handi bat lurraldeak eskaintzen zituen aukera ekonomikoak ziren. Are gehiago, 1570eko hamarkadako lehen espedizioetatik, urrezko meategiak bazirela ziur zeuden (Crossley, 2016:90-92). Metal preziatuen irrika hori Kodexean bertan islatzen da:

Tienen los naturales mucho oro, entiéndese que hay muchas minas de él en las montañas y no las quieren descubrir a los españoles a causa que no se las quiten; tienen asimismo unas piedras que precian mucho que se llaman bulaganes y bahandines que son joyas que traen las mujeres, no se ha sabido ni ellos saben dar razón si las sacan de mina o /9v/ dónde las hallan, mas que todos dicen que las han heredado de sus pasados y así las estiman y tienen en mucho precio, son negras y blancas (Barandica, 2019:84)<sup>20</sup>.

Cebu eta Panayko bisayak eta Luzongo tagaloei eskainitako kapitulu bikoitza Kodexaren zabalenetakoa izateaz gain, lehen sei kontakizunak bereizten dituen izaera etnografikoaren beste adibide bat. Lur hauen baketzeak, testuan behin baino gehiagotan aipatzen dena, egileari aukera eman zion jantzietan, zeremonietan, erritoetan eta abarretan arreta gehiago jartzeko. Tagaloei erreparatuz, egileak beste bi kontakizun eskaini zizkien beren ohitura erlijioso eta zibiletan sakontzeko, ez baitzuen desberdintasun handirik ikusten Filipinetako “indiarren” artean gai horiei dagokienez. Tagaloak islamiar erritu batzuetan hasi zituzten Borneoko musulmanek, horregatik Kodexean *moro* bezala izendatu zituzten, nahiz eta errealitatean “jentilak” izan (Barandica, 2019:106). Ohiturak eta bizimoduak partekatu arren, munduaren jatorria ulertzeko moduan bisayak eta tagaloak desberdinak ziren. Lehenengo teoria zentzugabekeriatzat jotzen da, bigarrenen kasuan, aldiz, “arrazoi naturalerako argitasun askoz handiagoa” zutela aipatu eta hau gehitzen da:

Tienen los moros de las Philipinas que el mundo, tierra y cielo y todas las demás cosas que en ellos hay fueron creadas y hechas por un dios tan solamente al qual dios llaman en su lengua Bachtala napal nanca calgna salahat que quiere decir dios creador y

---

<sup>20</sup> Hemendik aurrera, Kodexa Luis Abraham Barandicaren (2019) edizioaren orri-zenbakiarekin aipatuko da. Bertako modernizazio-irizpideak ere errespetatuko dira, testu-aipamenak sartzeko orduan.

conservador de todas las cosas, y por otro nombre le llaman Mulayri. Dicen que éste su dios está en el aire antes que hubiese cielo ni tierra ni las demás cosas y que fue ab eterno y no hecho ni creado de nadie ni por nadie y que él solo hizo y creó todo lo que hemos dicho por sola su voluntad queriendo hacer una cosa tan hermosa como es el cielo y la /42v/ tierra y que hizo y creó de la tierra un hombre y una mujer de los cuales descienden y vienen todos los hombres y generaciones dellos que hay en el mundo (Barandica, 2019:106).

Islamak tagaloen kosmobisioan zuen eragina argia da, gauza guztien gainean ahalguztiduna den Jainko hori (*Bachtala napal nanca calgna salahat*) Allahrekin erraz lotu daitekeelako. Kodexak, halaber, Borneoko musulmanek Luzongo hegoaldeko biztanleengan zuten eragin handia azpimarratzen duten beste gai batzuk ere azaltzen ditu. Buruzagi-klasea, tokiko aristokrazia eta populazio askea nukleo islamizatua osatzen zuten, esklabotzarenpean zeuden gainerako biztanleek, berriz, herri-erlijioari eutsi zioten bitartean. Donosoren hitzetan: “la intromisión española no puede suponer sino una oportunidad para alterar el estado de cosas y presentarse como la opción para “libertar” a población sometida con escasas posibilidades de progreso social” (Donoso, 2019:142). Tesi hau Borneori ere aplikatu dakioke, uharteari dagokion kontakizunean biztanleriaren dualtasun bera agertzen baita. Sultanak eta elite islamiarra “atzeritarrak” diren bitartean, tokiko bisayek<sup>21</sup> ez dute erlijio hori jarraitzen. Gainera, bion arteko harremana, Kodexak agerian uzten duenez, oso gatazkatsua zen:

El reino de Borney, para que mejor se entienda, no es natural sino advenedizo. Y así hay dos géneros de /74/ gente en la ysla que son los antiguos naturales a los cuales llamamos visayas [...] Éstos no guardan el al-Corán y en sus poblaciones crían muchos puercos [...] Casi tienen siempre divisiones unos con otros, reconocen vasallaje a el rey de Borney e le pagan tributo que entre ellos llaman upati; y este dicho tributo lo dan más por fuerça que de grado. Son enemigos de los borneyes e les quieren mal [...] El otro género de gente que en este dicho reino hay es los que se llaman yslandes que quiere decir gente que no come puerco que nosotros llamamos borneyes. Ésta es la gente que guarda el al-Corán los cuales son advenedizos (Barandica, 2019:126-127).

Dena den, kontakizun anonimoetan zehar ikuspuntu laiko bat gailentzen da, logikoa Kodexa Filipinetako gobernadoreen ekimenez sortu zela kontuan hartzen badugu. Horregatik, proiektu ebanjelizatzaileak ez du leku handirik testuan, enkomienda eta tributuen sistemak ez bezala, indigenen arteko bakea bermatzen zuen tresna gisa nabarmentzen baita:

---

<sup>21</sup> Egileak Panay eta Cebun jaiotakoak zein Borneoko indigenak aipatzeko termino bera erabiltzen du, ortografia-diferentzia txiki batekin, hau da, *bisayas* eta *visayas*, hurrenez hurren.

Tienen de ordinario entre sí los bisayas muchas guerras y diferencias mayormente antes que viniesen españoles a su tierra que apenas había pueblo que tuviese paz con sus vecinos; matándose y robándose unos a otros con mucha crueldad, haciéndose mil trayciones que de esto son grandes maestros, tomándose unos a otros por esclavos, no guardando la palabra que daban y prometían. Agora después que hay entre ellos españoles han cesado casi de todo punto estas cosas porque apenas hay entre ellos guerras y diferencias porque los españoles se las componen y les quitan de debates porque como los tienen en encomienda y les pagan tributo procuran de que no haya ninguna de estas cosas y las justicias por su parte hacen lo mismo (Barandica, 2019:97).

Enkomienda eta tributua Filipinetako enpresa konkistatzaileari eusteko behar ziren baliabideak lortzeko mekanismo gisa erabilia izan zen. Hala ere, kuotekin lotutako bidegabekeriak eta erresistentzia indigenaren aurrean enkomenderoen errepresioak kritika gogorak eragin zituzten Martin Arrada bezalako agustindar fraideen aldetik eta ondoren domingotarren aldetik, Domingo Salazar kasu (Alonso, 2003:16-25).

Bruneiko narraziora itzuliz, bertan Francisco de Sande gobernadore nagusiak 1578an egin zuen enbaxada zapuztuari ere erreferentzia egiten zaio (Barandica, 2019:128). Enbaxadoreetako baten heriotza aitzakiatzat harturik, Sandek eta bere tropek Bruneiko hiriburua inbaditu eta, alde egin behar izan bazuten ere, sultanerriaren eragina Filipinetan murriztea lortu zuten. Horixe zen gaztelauen benetako helburua, ezinezkoa ikusten baitzuten beren interes komertzial eta erlijiosoak lortzea, lehenago uhartedian musulmanen nagusitasuna hautsi gabe (Crailsheim, 2022:176-177). Espedizio horren oihartzunak kontakizunean aurki daitezke egileak, uharteari, armei edo itsas armadari buruzko datu estrategikoak ematen dituenean.

Jarraian datozen Malakako apezpikuaren hiru *roteiro*-ak askoz esplizituagoak dira konkista bat antolatzeko orduan. Kapitulukak antolatuta, sistematikoki informazio zabala ematen dute *Achen* (Aceh) eta *Patane* (Patani) sultanerrien eta *Çian*-en (Siam edo Ayutthayako Erresuma) inbasio bat eraginkortasunez garatzeko. Ribeiro Gaiok lurralde horien baketzeak etorkizunean Molukak konkistatzea ahalbidetuko lukeela aditzera ematen du, aldi berean, kontinentearen hegoaldetik “Mekara eta fedegabeen beste alde batzuetara” iristen ziren aberastasun guztiez jabetuz. Hori gutxi balitz, apezpikua eremu geografiko horretako espeziak, oihalak, metal preziatuak, egurra eta gainerako baliabideak zerrendatzen luzatu egiten da (Barandica, 2019:170-171).

Argi dago Ribeiro Gaioren helburua monarka konkista-proiektuan parte har zezan konbentzitzea eta enpresa horrek ekarriko zituen onurak erakustea zela. 1580ko batasun dinastikoaren testuinguruan, 1581-1601 urteen artean Malakako apezpikua izan zena Manilarekin batera politika inperial bat gauzaten saiatu zen, baita Tordesillasko (1494) eta Zaragozako (1529) Itunek ezarritako debekuak gaindituko zituen sare komertzial artikulatu bat eratzen ere. Portugaldar eta gaztelau indarren arteko koordinazioaren bidez, Aceh inbaditzen hasiko ziren, Malakaren etsai nagusia, eta Patanitik eta Siametik jarraituko zuten Txinara iritsi arte. Izan ere, Espainian ere halako proiektuak burutzen ari ziren, baina 1588ko Itsas Armada Garaiezinaren hondamendiak Alonso Sánchezek edo Francisco de Sandek *erdialdeko inperioa*<sup>22</sup> konkistatzeko bultzatutako planak bertan behera uztea eragin zuen. Ribeiro Gaiok aginte bakarreko eredu baten alde egindako saiakerak zapuztu ziren arren, proiektu hau Dasmariñatarrek begirunez hartu zuten eta horrek azaltzen du hiru *roteiro*-ak Kodexaren barruan sartzea (De Sousa, 2019:158-164).

Iturri portugesekin amaitzeko, Miguel Roxo de Britoren kontakizuna aztertu beharra dago. Aurreko lurraldeak ez bezala, Ginea Berria eta Raja Ampat uhartedia merkataritza-bideetatik kanpo zeuden, eta abenturazale edo espediziokide batzuek baino ez zituzten bisitatu. Espedizioa *Bachan*-etik (Bacan) abiatu zen, Moluketan, Tidoreko kokagune portugeseetik gertu. Ternatek bultzatutako etengabeko liskarren testuinguruan<sup>23</sup>, Britoren helburua argi eta garbi islatzen da testuan; inguruko eskualdeetan aliatuak bilatzea tokiko agintariekin itunak eginez. Aurreko kontakizunetakoak bezalako datu etnografikoetatik haratago, uharte horien aberastasunarekiko obsesioa antzematen zaio egileari. Hasierako aliantza politiko horiek lehen pauso bat baino ez zirela pentsa daiteke, eta gero baliabide horiek ustiatzeari ekingo zitzaiola, nola edo hala:

Tienen también éstos de One mucho oro labrado que traen en las orejas y en el pescuezo, preguntando yo de dónde cogían aquel oro respondieron que por aquella banda y costa adelante de la banda del sur estaba un reino que llaman Efia y junto a éste

---

<sup>22</sup> *Erdialdeko inperioa* Txina izendatzeko erabiltzen den esamoldea da. Txinako benetako izena den *Zhōngguó*-tik (中国) dator, literalki “erdialdeko herrialde” bezala itzultzen dena.

<sup>23</sup> Ternate uhartea, portugaldarrek 1570-1575 artean arte okupatu zutena, benetako buruko mina bihurtu zen, ez bakarrik hauentzat, baita gaztelauentzat ere, Filipinetako gobernadoreen espedizio guztiei kontra egin baitzietan (Gonzalo Ronquillo 1581ean eta Santiago de Vera 1584 eta 1585ean) (Crossley, 2016:42). Are gehiago, Gómez Pérez Dasmariñasen heriotza 1593an irla horretara bidean gertatu zen, bere tripulazio txinatarraren jaikialdia eta gero (Crossley, 2016:219).



están dos reinos muy poderosos de /143/ gente, una provincia que llaman Ugar en que hay mucho e fino oro (Barandica, 2019:187)<sup>24</sup>.

Arradak *Taybin-i* (Txina) buruz idatzitako kontakizunera pasatuz, aurreko atal batean jadanik 1575ean Luarcarekin batera egin zuen enbaxada aztertu da, beraz, ez da xehetasun handirik emango hemen. Arradaren behaketa argi guztien artean, herrialdearen handitasunari buruzkoak azpimarra daitezke, hedaduragatik zein meatze aberatsengatik. Txinatarrek deabruak gurtzen zituztela adierazi zuen, baina, oro har, erritu eta zeremonia gehienak barregarriak zirela ondorioztatu zuen. Agustindarrek defendatzen zuten asmo ebanjelizatzailea oso ondo erakusten duen esaldi batekin bukaera ematen zaio kontaktari:

Finalmente es la tierra muy fructífera y abundante y de infinita gente aunque infiel y con esso los más [males] que se siguen aquí no conocen a dios al /239v/ qual sea la honra y gloria pa siempre jamás y los convierta y traiga a su conocimiento. Amén (Barandica, 2019:224).

Kodexa azkentzen duten hiru gutunak eztabaidagai izan dira historialarien artean. Beste numerazio batekin, Ribeiro Gaio apezpikuari, frai Gregorio de la Cruzei eta Luis Pérez Dasmariñasi egotz dakizkiekeen gutunak ez dirudite obraren jatorrizko konposizioaren parte. Nolanahi ere, gutunek Dasmariñas gaztearen hedapen-irrika islatzen dute, Siam konkistatzeko proiektuaren bidez. Espedizio hauek, baita XVII. mende hasierakoak ere, Espainiak Hego-ekialdeko Asian zuen posizioa indartzeko nahiaren parte dira, Txina konkistatzeko ametsa amaitu ondoren. Testuetan interbentzioak justifikatzeko erabilitako argudioak oso esplizituak dira erregearen babesa bilatzeko orduan:

Es este rey de Sian grandísimo enemigo de los cristianos y del nombre de Jesus y de su santa cruz hácese mui poderoso, soberbio y cruel. Ymporta mucho para el servicio de dios y de su majestad y viendo estos estados ser destruido con un castigo notable (Barandica, 2019:235).

---

<sup>24</sup> *One* (Onin penintsula), *Efia* edo *Sufia* (baliteke Ogar gertu) eta *Ugar* (Ogar uhartea) Ginea Berriko kostaldean kokatuta daude, McCluer golkoan, gaur egungo Fakfak-etik gertu (Boxer eta Manguin, 1979:180, 186).

## 4. Ondorioak

Txinaren armen bidezko konkistaren ideia gaztelauen buruetan bizi izan zen hamarkada pare batez, aurrera eramane ziren espedizio ezberdinek eta haien ondorengo narrazioek izan zuten eraginari esker. Hala ere, Armada Garaiezinaren porrotak, edo, beste modu batean esanda, Europako asmo espantsionisten amaiera, Felipe II.ak itsasoz haraindiko politika koloniala birbideratzea ere eragin zuen, Txinako enpresa bertan behera utziz. Testuinguru horretan burutu izan zen Hego-ekialdeko Asiako herriak biltzen zituen bilduma baten sorrera, jadanik existitzen zen merkataritza-sarea indartzeko eta beste lurralde zein misio-proiektu batzuei bide emateko. Manila erdigunetzat hartuta eta Gómez Pérez Dasmariñas Filipinetako gobernadorearen eta bere semearen eskutik, Boxer Kodexak gaztelauen hedapen-helburuak zehaztu eta, aldi berean, hainbat herriri buruzko datu etnografikoak aurkezten ditu.

Hortaz, Kodexa aztertu, bere jatorria eta aberastasuna kokatu eta bertan barne hartutako gai zehatz bat aztertu ondoren, iturri-dokumental gisa duen balioa frogatu dela uste dugu. Casanatense 1889 Kodexa bezalako irudi-multzo bat izateaz haratago, iturri honek XVI. mendearen amaierako Hego-ekialdeko Asiako errealitate historikoari buruzko informazio zabala eta originala eskaintzen digu, Antonio de Morgaren obra ezagunaren kasuan bezala. Garaiko beste kontakizun batzuekin gertatzen den bezala, optika eurozentrikoa etengabe azaleratzen da autoreek ikusten zutena deskribatzerako orduan. Gaur egungo ikuspegitik, ordea, posible da Gaztelako eliteen helburu horiek bereiztea eta, ilustrazioen eta testuen osagai etnografikoa baloratzeaz gain, erabili ziren iturri txinatarrak edota espainiarren eta sangleyen arteko elkarrekintzak aintzat hartzea, Kodexaren elaborazioan funtsezko faktoreak izan baitziren.

Kodexa landu gabeko diamantetzat hartzen badugu, uste dugu azken urteotan egin diren ikerketek, Ollé eta Rubiésen liburua buru izanda, nabarmen lagundu dutela hura leuntzen. Azken horien ekarpenari esker, hainbat galderari ekitea lortu da, hala nola egiletzari edo kronologiari, eta errealitate historiko desberdinak aztertzeko duen balioa nabarmendu da, adibidez, sangleyena, portugesa edo lurralde islamiarra. Hala ere, beraiek onartzen dutenez, iturri hau agortzetik urrun dago, eta eztabaidarako eta interpretaziorako lekua uzten du. Gure ustez, aztertzen jarraitzeko eta, batez ere, mota bereko beste material historiko batzuekin alderatzeko ahalmena badu oraindik.

## 5. Bibliografía

- Alonso, L. (2003). “¿Qué nos queréis, castillas?” El tributo indígena en las islas Filipinas entre los siglos XVI y XVIII. *Jahrbuch Für Geschichte Lateinamerikas*, 40(1), 13-42.
- Angulo, A., Álvarez, O., Aragón, A. eta de Zaballa, A. (Koord.) (2021). *Mitoaz eta epopeiaz harago: Euskal Herria eta Magallaes-Elkano espedizioa lehen globalizazioaren testuinguruan*. Dykinson.
- Barandica, L. A. (2019). *El Códice Boxer. Edición moderna de un manuscrito del siglo XVI. Perspectivas ibéricas del Este y Sureste de Asia*. Palabra de Clío.
- Béguelin-Argimón, V. (2019). Alimentación y retórica de la alteridad en los relatos de viajeros españoles a China en el siglo XVI. In R. Beltrán (Ed.), *Viajeros en China y libros de viajes a Oriente (Siglos XIV-XVII)* (125-150 orr.). Universitat de València.
- Béguelin-Argimón, V. (2021). (Re) escrever a China no século XVI: marcas portuguesas e especificidades no Discurso de la Navegación de Bernardino de Escalante. *Língua lugar*, 2(3), 122-138.
- Boxer, C. R. (1950). A Late Sixteenth Century Manila MS. *Journal of the Royal Asiatic Society of Great Britain and Ireland*, 82(1-2), 37-49.
- Boxer, C. R. eta Manguin, P. Y. (1979). Miguel Roxo de Brito's Narrative of his Voyage to the Raja Empat (May 1581—1582). *Archipel*, 18(1), 175-194.
- Busquets, A. eta Torres, M. (2016). El sentido del honor en China: percepciones hispánicas en la Edad Moderna. *Clio y Crimen*, (13), 125-148.
- Cervera, J. A. (2014). Los intentos de los franciscanos para establecerse en China, siglos XIII-XVII. *Sémata: Ciências Sociais e Humanidades*, (26), 425-446.
- Chen, T. (2019). Las fuentes chinas del Códice Boxer: la ilustración de los xaque (畚客) y el conocimiento del Fujian. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (111-128 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Crailsheim, E. (2022). Contactos diplomáticos entre la monarquía hispánica y los pueblos asiáticos (1570-1615). In D. Herrero (Koord.), *Fernando de Magallanes: de la corte del Emperador a Filipinas (1521) pasado español y memoria actual en el V Centenario de la llegada al Extremo Oriente* (149-187 orr.). Editorial Páramo.

- Crossley, J. N. (2014). The early history of the Boxer Codex. *Journal of the Royal Asiatic Society*, 24(1), 115-124.
- Crossley, J. N. (2016). *The Dasmariñases, early governors of the Spanish Philippines*. Routledge.
- De Sousa, P. J. (2019). Materiales portugueses sobre el sudeste asiático en el Códice Boxer. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (155-177 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Donoso, I. (2014). Boxer Codex (I). *Revista Filipina, Segunda Etapa, Invierno-Primavera 2014*, 1(2), 1-35.
- Donoso, I. (2019). El islam en el Códice Boxer. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (129-154 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Folch, D. (2010a). ¿Todos los chinos sabían leer y escribir? Escritura, lengua y educación china en los textos españoles del XVI. In M. A. Montaner Montava eta M. Querol Bataller (Ed.), *Lenguas de Asia Oriental, estudios lingüísticos y discursivos* (119-132 orr.). Universitat de València.
- Folch, D. (2010b). El pecado nefando: la homosexualidad china en las Relaciones castellanas del XVI. *REDIAO*, 2, 61-98.
- Folch, D. (2013). Un testimonio infravalorado: la China Ming en las relaciones castellanas del siglo XVI. *Boletín Hispánico Helvético*, 21, 41-69.
- Folch, D. (2020). La selección de González de Mendoza: lo qué ensalzó, retocó o suprimió. In E. Barlés (Koord.), *Ex Oriente. Los libros occidentales que iluminaron el conocimiento sobre Asia Oriental en la Edad Moderna*. Pressas Universitarias de Zaragoza.
- Hausberger, B. (2018). Historia mínima de la globalización temprana. El Colegio de México AC.
- Ibáñez, M. (2021). Visual Arguments and Entangled Ethnographies in the Boxer Codex. *Manuscript Studies: A Journal of the Schoenberg Institute for Manuscript Studies*, 6(1), 98-130.
- Martínez, C. (2021). El Códice boxer al alcance de todos. *Encuentros en Catay*, 577-584.
- Moncó, B. (1998). Entre la imagen y la realidad: los viajes a China de Miguel de Loarca y Adriano de las Cortes. *Revista española del Pacífico*, (8), 569-584.

- Ollé, M. (1998). La invención de China: Mitos y escenarios de la imagen ibérica de China en el siglo XVI. *Revista española del Pacífico*, (8), 541-568.
- Ollé, M. (2019). Un regalo inacabado. El Códice de Manila como testimonio de un proyecto fallido. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (21-36 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Ollé, M. eta Rubiés, J. P. (2019). Introducción. El redescubrimiento del Códice Boxer. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (9-20 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Romero, L. (2018). The Likely Origins of The Boxer Codex: Martín de Rada and the Zhigong Tu. *EHumanista*, (40), 117-133.
- Rubiés, J. P. (2019). El Códice Boxer como enigma: en búsqueda de la voz de un autor. In M. Ollé eta J.P Rubiés (Ed.), *El Códice Boxer, Etnografía colonial e hibridismo cultural en las islas Filipinas* (37-90 orr.). Edicions Universitat Barcelona.
- Santos, J. M. (2006). Estudio histórico-filológico de la crónica del viaje a China de fray Agustín de Tordesillas. *eHumanista*, (7), 115-126.
- Sola, D. (2016). Juan González de Mendoza y la Historia del Gran Reino de la China: la construcción del relato sinológico desde la Europa del Quinientos. *Revista Estudios*, 1(32), 1-23.
- Sola, D. (2017). A las puertas de China: la misión agustina (1575-1589) y su legado sinológico: Dossier: Religions, missions i visions: estratègies missioneres a la Xina d'època moderna. *Pedralbes. Revista d'Història Moderna*, (37), 25-46.
- Turley, J. S. eta Souza, G. B. (2016). On the First Complete Edition of the Boxer Codex. *Romance Philology*, 70(2), 459-475.